BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2425

EBAZPENA, 2014ko apirilaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez izendatzen baitira osasun-zentroak eta kontsultategiak eraikitzeko, handitzeko, eraberritzeko eta konpontzeko Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako diru-laguntza deialdiko batzordeko kideak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiaren bitartez, osasun-zentroak eraikitzeko, handitzeko, eraberritzeko eta konpontzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko korporazioei 2014. urtean diru-laguntzak emateko deialdia egin da, eta, erabaki horren I. eranskineko 6.1 puntuak xedatzen duenez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak horretarako berariaz emandako ebazpen batez izendatutako batzordeak baloratuko ditu eskabideak.

Azaldu den guztiaren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Erabakiak xedatutako batzorde horretako kide izendatzea honako hauek:

Epaimahaiburua:

– Titularra: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ekonomia Kudeaketako zuzendaria.

– Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaria.

Bokalak:

– Titularra: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendariordea.

– Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendariordetzaren ordezkari bat.

– Titularra: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen zuzendariordea.

– Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen Zuzendariordetzaren ordezkari bat.

– Titularra: Eskualde Sanitarioetako edo Erakunde Sanitario Integratuetako ordezkari bat.

– Ordezkoa: Eskualde Sanitarioetako edo Erakunde Sanitario Integratuetako ordezkari bat.

– Titularra: Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea.

– Ordezkoa: Aholkularitza Juridikoko Zuzendariordetzaren ordezkari bat.

Idazkaria:

– Titularra: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen Zuzendariordetzaren ordezkari bat.

– Ordezkoa: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erosketa, Obra eta Zerbitzu Estrategikoen Zuzendariordetzaren ordezkari bat.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.